

ITSASBAZTERREKO BIDEXKA

Maila
3

ERTAIN

BIDARTETIK DONIBANE LOHIZUNERA



Uhabia hondartza

Itsasbazterreko bidexkaren lehen parteak paisaia desberdinak eskaintzen ditu, hondartzak, badia tikiak, bidexkak eta bide tikiak. Santa Barbarako puntara arribatzea zoragarria da. Handik Donibane Lohizuneko badia gailentzen da. Aholku bat...hobe marea behera delarik egitea.

Abiapuntura joateko :

Baionatik, A63 4. irteeran, RD810 hartu, Bidarteko norabideruntz. (2.5 km). Bidarteko sartzean, eskuin hartu, Erretegia karrikatik, eta jautsi 50m izen berdina duen aparkalekuraino. (pasabidea mugatua da altueran). Bidexkaren hastapena beherago kokatzen da, ezkerrean., hesi baten gainetik 150 m-tara eta ibilbidea ikus daiteke mahain batean.

Handik sartzeko

Donibane Lohizunetik Bidartera, ATCRB autobuseko ohiko ibilbidea, ordutegia eta tarifak : 05 59 08 00 33

D Abiapuntutik, itsasbazterreko bidexkaren norabidezko seinaleak segitu. Igo ezkerrean eskailerretatik. Karrika (Corniche de la falaise edo labarraren erlaitza) eskuinean segitu eta Santa Madalena kaperara **1** (613898 4810590). joan. Norabide mahainera jautsi. Herri barneko hondartzara joan, behean. Igo berriz larrialdi postuaren ingurutik pasatuz. Embruns lotizamendura joan, kiroldegiaren bazterretik pasatu, RD810 hartu, eta Uhabia hondartzara jautsi. Larrialdi postuaren ingurutik pasatu.

Igo berriz mendi bizkarraren gainera, eskailerretatik eta eskuinean, Parlemestia eta Atalaya karriketarik, joan San Josepe kaperara **2** (612976 4809332). Interpretazio mahainak eta eskailerrak pasatu Getariako itsas bazterreara joateko. Getariako portura joan. Badiaren puntan, berriz igo bidexka batetik eskailerrak segituz.

Segitu eskuinera, Labarren bidetik. Zenitzeko hondartzako aparkalekura joan, bidexka batetik, Igo berriz, interpretazio mahainetara, **3** (611784 4808599). Puntan, zubia pasatu eta joan ezkerrean Zenitzeko bidexkatik, eta ondotik, Agerria karrikatik.

Aparkalekuan, eskuinera joan, Lafitenia hondartzaruntz. Berriz igo eskailerretatik, eta pattarraren erdian den **3'30**

bidexka batetik. Beste aparkaleku batean, eskuinera segitu, kostaldea gailentzen duen beste bidexka batetik. Itzuli segidan ezkerrean Kobotia baserriko bidera joateko.

Eskuinera joan ; bidegurutzean, xuxen segitu. Erromardiko hondartzaruntz jautsi : 270 m ibili, zubi baten ondotik, dikea trabeskatu, eskuinean, eta Idiarregaray Abadearen bidea segitu. Hesiaren ondotik, Paul Jovet baratze botanikoaren etxean den bidegurutzera joan.

2'25 Eskuin hartu eta Artxiloako gurutzera **4** (609327 4806603) joan. Ezkerrean, parkea inguratzen duen bidexka hartu ; paisai bat ikusten da, zeinetan itsasbazterreko landaredia baloratua izan den. Hesi baten ondotik, berriz igo ezkerrean «la pile d'assiettes» (plater meta) karrikara, eta eskuin hartu Bernoville karrikara. Chaliapine ibilaldiaren hesia pasatu : interpretazio mahaina. **5** (608483 4806279).

2'45 Kostaldetik urruntzen den Santa Barbararen puntara joan, itsasargira eta norabide mahainera joan ahal izateko. Segitu eskailerra batzuk eta ondotik, harkaitzen pasealekua hartu, eta gero, Donibane Lohizuneko hondartzaren pasealekua. Pergolako Kasinoko erlaitzaren azpitik segitu eta ondotik, kanpoan, dikea segitu, Portuko sartzean den itsasargiraino. Eskuinera jautsi justu lehenago eta portuaren bazterretik ibili Luis XIV plazaraino (608261 4804644).



D Bidarte - Erreategia plaza (614230 4811160)



3'30



13,3km



340m

Kartografia : Mendebaldeko euskal herria / rando edizioak

GPS (WGS84-UTM-30T)

GPS azterna deskargatu, www.rando64.fr webgunean.

Ikusi beharrekoa :

- Santa Madalena Kapera eta kostaldeko bista.
- Herri barneko hondartzak, Uhabia, Zenitz, Lafitenia, Erromardi eta Donibane Lohizuneko hondartzak.
- Artxiloako gunea eta baratze botanikoa.
- Santa Barbararen punta eta Donibane Lohizuneko badiaren bista

Bizikleta debekatua

Balizamendu seinaletika « itsasbazerreko bidexka »

Itsasertzeko Paul Jovet Baratze botanikoa

Baratze honetan aurkitzen den landarediaren parte handi bat inguruetako berezko landareez osatua da. Haietarikoz batzuk arraroak edo espezie endemikoak dira, eta guztiak beren jatorrizko ekosistemaren arabera bateratuak dira. Hala, euskal itsasertzeko ingurune natural garrantzitsuen dinamika espezifikoak eta pairatzen dituzten arriskuak zehaztuak dira..

Xehetasunak : www.amicale-paul-jovet.com



Paul Jovet baratzea



Renseignements complémentaires auprès de :

• Office de tourisme Terre et côte basques Pays de St-Jean-de-Luz - Hendaye.

Tél : 05 59 26 79 62 - terreetcotebasques.com

• Office de tourisme de Bidart

Tel : 05 59 54 93 85 - www.bidarttourisme.com

www.rando64.fr

à pied, en vtt ou à cheval, découvrez le Béarn et le Pays basque !

Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera gutzien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira eta ibilbide bakoitxaren fitxa praktikokoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

Biziki errexa 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

Errexa 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

Ertaina 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zaila batzu eta desnibela handia izaten ahal dira.

Zaila 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

Ibilaldiaren iraupena: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pausatu dituen sormakak dira

Ibilaldien labelak

PR® labelizaturiko ibilbideak:

Label horrekin, FF Randonnée-ek oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, www.ffrandonnee.fr)

Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecoville®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharren jakinarazteko CRDP 64 deitzera gomitzen zaitugu : 05.59.14.18.80.

Edo « Ecoville » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean : www.rando64.fr

Aholku baliagarriak

Aroa 08 92 68 02 64

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziarazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da :

WGS 84 - UTM 30T

Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !